

**2016KO OTSAILAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Laua.

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hamasei

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2016ko urtarrilaren 7ko akta onartzeko proposamena.

2016ko urtarrilaren 7ko aktaren berri eman ondoren, Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), esan du aktan ez dela jasotzen ondorengoak: “Hemos sabido que se ha hecho una reforma en el despacho del Alcalde. Queremos saber el costo de dicha reforma, cuales han sido los criterios a seguir por el Alcalde para haber llevado a cabo la misma.”

Egiaztatu da, jatorrizko aktan jasota dagoela eta itzulpena egiteko garaian esaldi hori txertatzea ahaztu egin dela.

2.- AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUDIA: aldi baterako pertsonala kontratatzeako araudia.

Alkate jaunak (EAJ-PNV), aipatutako araudiaren berri eman du, hau da:

“II ERANSKINA: ALDI BATERAKO PERTSONALA KONTRATATZEKO ARAUDIA (ABENDUAREN 26KO, 48/2015 LEGEAREN 20. BI ARTIKULUA, 2016. URTERAKO ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAK).

*Aldi baterako pertsonalaren kontratazioari dagokionean, kontutan izan behar da, urriaren 29ko, 48/2015 Legearen 20 artikuluko bigarren atalak, 2016. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrari buruzkoak, ezartzen duen **muga**.*

*Hain zuzen ere, aipatutako 2016. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ondorengo xedatzen du: “ez da aldi baterako langilerik kontratatuko, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik edo bitarteko funtzionariorik izendatuko ere, **salbuespenezko kasuetan eta premiazko behar atzeraezinak estaltzeko izan ezik; azken hauek, gainera, lehentasunezko edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragiten duten sektore, eginkizun eta kategorietara mugatuko dira.***

Aipatutako salbuespenak, Hazienda eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren aurretiko eta esanbidezko baimena beharko du estatuaren eremuan.

Toki-mailan ez da xedatzen aurretiazko baimenaren beharra, baina oinarritzko izaera duen idatz-zatia izanik, eta beraz, Toki Administrazioa osatzen duten erakundeei dagokiena, Korporazio bakoitzak xedatu beharko ditu aldi baterako pertsonala kontratatzea dagozkion kasuak, Aurrekontua Gauzatzeako Oinarrietan edo barne kontrolerako Araudietan zehaztuz.

Beasaingo Udalak barne erregimenerako Araudirik ez duenez, Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araudian xedatu beharko ditu 2016 urtean aldi baterako pertsonala kontratatzeke irizpide orokorrak, eta horietan oinarrituta Alkatearen eskumena izango da kontratazio berri bakoitzaren justifikazioa.

Horren arabera Udalak 2016. urtean aldi baterako pertsonala kontratatu ahal izango du, dagokion aurrekontu-kreditua aurreikusi ondoren, beti ere, Langileen Estatutuan xedatutakoa eta gainera 48/2015 Legearen 20.bis artikuluko baldintzak betez, hau da:

Beharrezko zerbitzuaz gain, lehentasunezko edo funtsezko zerbitzuak izango dira, baliabide pertsonalaren ezak, herritarren beharretan eta udal zerbitzu departamentuen funtzionamenduan eragin berezia dutenak. Gainera, premiazkoak eta luzaezinak izateko xehetasun hauetako bat eman beharko da:

1.- *Langilearen aurreikusitako ausentzia hilabete gainditzea eta bi langileek osatutako departamentuetan izan ezik, arlo bakoitzeko langile kopuruaren arabera, ordezkapena gutxienez bi pertsona falta direnean emango da (kasu honetan langile bat bakarrik ordezkatzeko da).*

Hala ere, langilearen zeregina musika eskolan klaseak ematea denean, langile baten ausentziak kontratazio berri bat ekarriko du, baldin eta dauden Giza Baliabideekin matrikulatuta dauden ikasleei zerbitzua eman ezin zaienean.

2.- *20/2011 Erret Dekretu Legegilearen aurretik arloan pertsonala falta dela egiaztatuta egotea eta kontratatu nahi den pertsonala kontratazio administratiboan osagarria izatea.*

3.- *Pertsonalaren faltak herritarren segurtasuna eta osotasuna eta udal ondasuna arriskuan jarri dezaketen edo ekintza bera ez egitea edo ez zaintzea ekarri dezaketen momentu puntualetan, hala nola, jaietan, antolatutako ekintza desberdinetan direla eta lana pilatzen denean.*

4.- *Diziplina urbanistikoko arrazoiak, herritarren segurtasunean edo udal eraikinen hondatze larrian eragin dezaketenak.*

5.- *Ezinbesteko kasuetan, gerora sortutako arrazoiak direla medio, dagoen pertsonala baino gehiago behar izatea eragiten duenean.*

6.- *Aldi baterako pertsonalaren kontratazio hauek enplegua sustatzeko Programei atxikita doazenean edo/eta diruz lagunduta daudenean bere osotasunean edo zati batean.*

Aurreko guztia ez da aplikatuko, Udalak irtenbidea eman duen kasuetan kontratazio laboralaren bidea erabili gabe, baina toki entitateak eman beharreko zerbitzuari erantzuna eman zaionean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da araudia.

3.- PLANTILA ETA LANPOSTUEN ZERRENTA: Euskaltegia.

Alkatea jaunak, Antolakuntza batzordearen proposamenaren berri eman du:

Zuzendari batek, behin betiko hiru irakasle titular, finkoa ez jarraikoa den irakasle eta behin betiko den administrari batekin osatuta dagoen plantila eta lanpostuen zerrendari aho batez hasierako onespina eman zaio eta jendaurrean jarri ondoren, erreklamaziorik ez bada, onespina behin betikoa izatera pasatuko da.

4.- TAOren ORDENANTZA ALDATZEA: hasierako onespina.

Alkate jaunak (EAJ-PNA), Antolakuntza batzordeko proposamenaren berri eman du, Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenantza aldatzeari, hain zuzen ere. Aldaketak ondorengo artikuluen da: 6, 8, 9, 10, 11, 12 eta 14.

Artikulu horiek honela geratzen dira:

6. Artikulua: *Aparkaleku mugatuko bi gune egokituko dira (Erdigunea eta Ezkiaga auzoa), eta erdigunean sektore ezberdinak izango dira.*

Sektoreak ondorengo hauek dira:

Sektore Marroia: Erauskin plazan kokatuta dauden aparkalekuak.

Sektore Urdina: Esteban Lasa (1etik 7ra eta 2tik 12ra), Esteban Lasaren barrualdean dagoen aparkalekua (4tik 12ra), San Inazio (1etik 19ra eta 2tik 14ra), Oriamendi (Erauskin plazatik Garmendia Otaola kaleko bidegurutzera), Trenbide (Barrendain plazatik Joan Iturralde kaleko bidegurutzera), Gernika pasealekua, Kale Nagusia (Erauskin plazako bidegurutzetik Joan Iturralde kaleko bidegurutzera eta Kale Nagusia 40ko atzealdea) eta Bernedoenea (Osasun Zentroaren parean).

Sektore Berdea: Gipuzkoa plazan eta Zaldizurreta kalean 9tik 19ra, atzealdean kokatuta dauden aparkalekuak.

Gune gorria: Ondorengo kale hauetan dauden aparkalekuak: Joan XXIII kalea, Arantzazu kalea, Mateo Muxika kalea, Mariarats kalea (2tik 11n dagoen aparkalekuraino, aparkaleku hau kanpoan utziz), Oriako pasealekua, Ezkiaga etorbidea (Joan XXIII kaleko bidegurutzetik Oriako pasealekuko 18raino). Gune hau kale hauetan bizi direnentzako bakarrik izango da.

Gune gorriaren ordutegia hau izango da: Astelehenetik ostiralera 23:00etatik 10:00etara.

Beste sektore guztientzako ordutegia hau izango da: Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, larunbatetan 09:00etatik 13:00etara.

20:00etatik 09:00etara, larunbatetan 13:00etatik aurrera, igandeetan eta jai-egunetan ez da gehienezko denbora mugarik izango.

Abuztuan eten egingo da araututako aparkaleku sistema.

8. Artikulua: *Aparkatzeko gehienezko denbora-tarte hauek ezartzen dira:*

Sektore Marroia: Gehienez ordubete. Ezingo da sektore honetara bueltatu ondorengo ordubeteen.

Sektore Urdina: Gehienez 4 ordu.

Sektore Berdea: Egun osoan aparkatzea baimenduko da.

Gune gorria: Aipatutako kaleetan bizi direnentzako eta ordutegi mugarik gabe.

Egoiliarren txartela duten ibilgailuek erdiguneko sektore guztietan aparkatu ahal izango dute denbora-

mugarik gabe sektore marroian (Erauskin plaza) izan ezik, horretarako ezarritako kuota ordainduta. Gune gorrian ere ezin izango dute aparkatu.

Salbuespenez, Erauskin plazako sektore marroian aparkatu ahal izango dute denbora mugarik gabe, Erauskin kalea, 2ko egoiliarrek, beti ere egoiliarren txartela ikusgarri badute.

Gune gorriko egoiliar txartela duten ibilgailuek, erdiguneko sektoreetan ezin izango dute aparkatu.

Erabiltzaile guztientzako eta sektore guztietako aparkalekuetan lehenengo 15 minutuak doan izango dira, baina TAO egoiliar txartela ez dutenek sektore guztietako sisteman matrikula sartu beharko dute, eta egoiliar txartela dutenek sektore marroian bakarrik sartu beharko dute matrikula.“

9. Artikulua: Egoiliartzat hartuko dira Trafiko Zuzendaritza Nagusian artikulua honetan zehazten diren kaleetan erregistratuta dauden ibilgailuak, baldin eta jabea ibilgailuaren helbide berean erroldatuta badago.

Autoak edo ibilgailu mistoak izan beharko du.

Kale-zerrenda: Zaldizurreta (1etik 19ra), Esteban Lasa, Martina Maiz, Igartetxe, Bista Alai (10etik 16ra eta 9tik 19ra), Andre Mari (1etik 13ra), Erauskin (2-4 eta 7), San Inazio, Urbialde plaza, Oriamendi (4tik 30era eta 3tik 29ra), Nekolalde (2tik 24ra eta 7tik 27ra), Garmendia Otaola 1-2-3, Barrendain plaza, Nafarroa etorbidea (1etik 25era), Kale Nagusia, J.M.Iturriotz (1etik 15A-15Bra eta 2tik 16ra), Bideluze plaza, Jose Martin Arana kalea, Zazpiburrieta, J.M.Iturriotz kalea (19tik 27ra), Joan XXIII kalea, Arantzazu kalea, Mateo Muxika kalea, Mariarats kalea, Oriako pasealekua eta Ezkiaga etorbidea.

10. Artikulua: Tarifak, Udalak bere garaian onartutakoak izango dira eta Ordenantza Fiskalean jasota egongo dira. Gune gorriko egoiliar txartelak dohainik izango dira.

11. Artikulua: SALAKETEN ORDAINKETA

Kudeaketarako sistemak 14. artikuluan a,b eta c ataletan jasotako arau-hausteen salaketak berehala ordaindu ahal izateko aukera ematen du, beti ere ordaindutako denbora amaitu zenetik bi egun igaro baino lehenago ordaintzen bada eta zerbitzuek ibilgailua erretiratzeko edo ibilgetzeko neurririk hartu ez badute. Parkimetroan ordaindu beharreko kopurua arau-haustearentzako ezarritako zigorren bostena izango da.

Ordaintzeak ez du esan nahi ibilgailuak aparkatutako tokian jarraitzerik daukanik, berehala erretiratua izan behar du, edo bestela ibilgetua edo bide publikotik erretiratua izan daiteke, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide

Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 104 eta 105 artikuluek ezarritakoaren arabera.

Aurre ordainketa parkimetroan egingo da.”

12. Artikulua: Egoiliarren txartela

Egoiliar txartela lortzeko, inprimaki ofiziala behar bezala beteta aurkeztu beharko da, ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren fotokopia konpultsatuekin batera.

Ibilgailuko egoiliar txartel bakarra banatuko da.

Egoiliar txartela duten pertsonak izango dira bereizgarri horren erantzuleak. Beraz, helbide- edo ibilgailu-aldaketak Beasaingo Udalean jakinarazi beharko dituzte, sor litzakeen ondorioei begira.

Txartelean ibilgailuaren matrikula eta zein urtetan egongo den indarrean zehaztuko dira, gune gorrikoak izan ezik, hauek ez dira iraungiko.

Egoiliar txartela emateak tasak sorraraziko ditu; Udalak zehaztuko ditu tasa horiek, urtero, ordenantza fiskalaren bidez.

Egoiliar txartela lortzeko bete beharreko baldintzetako bat aldatzen bada baimendutako epean, txartela baliorik gabe geldituko da eta egoera eman denetik kontatzen hasita, 7 egun naturaleko epean bueltatu beharko da udaletxera, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Egoiliar txartel baten titularrak etxebizitza edo ibilgailua aldatzen baditu, etxebizitza edo ibilgailu berriari dagokion txartela emango zaio. Ez du tasarik ordaindu beharko, etxebizitza berria gunearen barruan baldin badago.

Halaber, aurreko txartela itzuli eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren kopia bana ere aurkeztu beharko du. Honako arau hau bete ezean, aurreikusitako zigorrez gain, egoiliarrentzako txartela ezeztatu egingo zaio, eta ezin izango du berririk atera, horretarako eskubidea izan arren.

Egoiliar txartela lortu ahal izateko eskatzaileek ez dute Beasaingo Udalarekin inolako zorrik izango.

Zirkulazioko baimena enpresa baten izenean duten ibilgailuen jabe diren egoiliarrek ere eskatu ahal izango dute txartel berezi hori. Kasu horretan, enpresak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute egiaztatzeko ibilgailu hori eskatzailearen erabilera pertsonalerako dela.

Ibilgailua (leasing edo renting) alokairuan duten egoiliarrek ere eskatu ahal izango dute txartel berezi hori, ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari bezala egon behar dutelarik.

Txartel bereziaren baldintza orokorrak egoiliarrentzako txartelarentzako ezarritakoak berberak izango dira.

Txartelaren indarraldia aipatzen den urte naturalaren bat egingo du, urtea pasa ondoren txartela iraungi egingo da eta berria hartzea beharrezkoa izango da eta prezioa dagokion Ordenantzan jasotakoa izango da.”

14. Artikulua: Ordenantza honetako artikuluek ezarritakoa urratzeak edota Alkatetza-lehendakaritzak honen garapenean ezarritako beste xedapenen bat urratzeak ere, legez ezarritako prozeduraren bidez zigortuko dira.

Ondorengoak hartuko dira arau-haustetzat:

- a) *Aparkatzeko ordutegi-txartelean zehazten den denbora gainditzea.*
- b) *Aparkatzeko ordutegi-txartelik gabe edo behar bezala erakutsi gabe aparkatzea.*
- c) *Aparkatu ahal izateko txartel manipulatu edo faltsua erabiltzea.*
- d) *Aparkatu ahal izateko tiketa edo egoiliar txartel baliogatua, iraungia edo desegokia erabiltzea.*
- e) *Egoiliarrentzako txartela erabiltzea, bertan zehaztutako ibilgailuaren jabea aldatu denean.*
- f) *Egoiliar txartelen titularrek helbide aldaketaren gaineko edo ibilgailuaren eskualdatzearen gaineko jakinarazpenik ez egitea.*
- g) *Txartel berezien erabilera okerra egitea.*
- h) *Motozikleta edo ziklomotorra gainontzeko motordun ibilgailuentzat egokitutako tokian aparkatzea.*
- i) *Aparkatu ahal izateko egoiliar txartel gabe aparkatzea edo txartela ikusten ez den lekuren batean aparkatzea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Aldaketak egitearekin ados gaude. Bernedoeneakoarekin ados gaude, baina Ezkiagakoarekin gure zalantzak ditugu, batik bat aurreko legealdian martxan jarri zena funtzionatzen ari delako. Horrekin ez dugu esan nahi oraingoak funtzionatuko ez duenik, baina zalantzak ditugu. Alde batetik leku eskusiboa geratuko delako eta bestetik kontrolatzeko zaila izango delako. Horren inguruan beti esan duguna da ordenantza egiteko garaian betetzekoak izan behar direla, bai gure alderditik eta baita ere besteengandik. Uste dugu hor inolako kontrolik gabe aparkatuko dutela eta jendearen borondate onaren baitan geratuko dela. Hori dela eta gu abstenitu egingo gara.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Guk ere ez dugu ziurtasunik horrek funtzionatuko duenarekiko. Egin den trafikoko ikerketak esaten du gure horretan funtzionatzen duela, baina inguruan zegoen arazoa bere horretan jarraitzen duela. Gehitze hau, horregatik da. Ez dagoenak ez duelako funtzionatzen baizik

eta iruditzen zaigulako funtzionatu hobe lortu daitekela. Bere mugak ditu orduetik, gaueko 11,00etatik goizeko 9,00etara. Hobekuntza modura proposatzen da ziurtasunik gabe funtzionatuko duen ala ez. Proposamen hau egin zaigu ikerketa egin duen aldetik eta horregatik planteatzen dugu proposamen hau.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (Beasaingo EH BILDU).

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenantzaren aldaketari hasierako oenospena ematea.

Bigarren. Espedientea jendaurrean jartzea iragarkia GAOean argitaratuz, 30 eguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamaziorik ez bada, ordenantza behin betiko onartuta geratuko da.

5.- ORDAINSARIAK: Ordainsarien gehikuntza (%1a).

Alkate jaunak (EAJ) Antolakuntza batzordearen proposamenaren berri eman du, hots, ordainsarien igoerari buruz, hau da, 2015eko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsariekiko %1eko igoera egitea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

6.- ELKARKIDETZA: 2012ko irailetik 2013ko abendura arte ordaindu gabeko ekarpenak egitea.

Alkate jaunak proposatuta, gai hau mahai gainean geratu da.

7.- FUNTZIO GEHIGARRIAK Idazkaritza eta Kontuhartzailatza lanpostuenak Sasieta Mankomunitatean ematen diren zerbitzuengandik.

Alkate jaunak (EAJ) Antolakuntza batzordearen ondorengo proposamenaren berri eman du:

“**AURREKARIAK**

I.- Igaro den ekainean Korporazio berriak osatu ondoren, 2015-09-08an Sasieta Mankomunitateko organoak eratu ziren eta Lehendakaria izendatu izan zen, Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo Alkatea jauna.

II.- Mankomunitateko estatutuak 1991koak dira eta 6. artikuluan adierazten dute, Idazkari eta kontuhartzaile funtzioak beteko dituztela Lehendakaria den herrikoak direnak. Horren arabera, Beasaingo Udalaren Idazkaria eta Kontuhartzaileak automatikoki betebeharrak horiei ekin die, lanpostu horiekiko erantzukizunak beraiei ardurapean geratuz eta 2015-09-16an, 2015-10-15ean, 2015-10-26an, 2015-11-23an eta 2015-12-28an Batzorde Errektoreak egindako bileretan parte hartuz.

III.- Hala ere, eta estatutuek arautzen dutenaren kalterik gabe, hori ez da legeak ezarritako prozedura Toki Entitatea den Mankomunitateak, bi lanpostu horiei edo, kasua bada, Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua izateko.

IV.- Mankomunitateak 2015. ekitaldi ekonomikorako duen aurrekontua 11.490.960 €koa da eta Mankomunitatea osatzen duen udalerriek ordezkaturako eskumenak, hiri hondakinen kudeaketa eta zaborteia ustiatzea, dira.

V.- Egun, Beasaingo Udalaren plaza horiek okupatzen dituenengatik Mankomunitateko Idazkari eta Kontuhartzaile funtzioak betetzea:

- Estatutuetan xedatutakoan bakarrik oinarritzen da, eraginpeko diren funtzionarioekin adostu gabe, 1732/1994 Errege Dekretuaren 31 artikuluan xedatutakoaren aurka.

- Foru Aldundiaren aldetik inolako baimenik ez dago.

VI.- Hori kontutan izanik, 2015-10-7ko idatziaren bidez, Idazkariak eta Kontuhartzaileak Mankomunitateko Lehendakariari eskatu diote Batzorde Errektoreak erabaki dezala Idazkari/Kontuhartzaile plaza sortzeko eskaria egitea Eusko Jaurlaritzari, ondoren, lege ezarritako prozeduraren bidez hornitu dezan. Hau guztia, Toki-Erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiak bere 37,3 artikuluan xedatzen duenaren arabera, hau da, lanpostu horiek gaikuntza nazionalako funtzionarioek bete behar dituztela.

VII.- 2015-11-23ko Batzar Errektoreak erabaki zuen Eusko Jaurlaritzako Administrazio Publiko eta Justizia departamenduari ESKAERA egitea, Sasieta Mankomunitatearentzat Idazkari/Kontuhartzaile plaza sortzeko, ondoren legeak ezartzen duen prozedura jarraituz hornitu ahal izateko.

VIII.- Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak Ebazpena eman eta erreserbatutako funtzioak betetzeko modua zehaztu zain, lanpostu horiei dagozkien funtzioak burutzen ari dira eta horren ondorioz ordainsari osagarria ezartzea dagokio. Ordainsari hau Udalak ordainduko die funtzionarioei nominaren bitartez eta ondoren Mankomunitateak Udalari itzuliko dio ordaindutako kopurua.

OINARRI JURIDIKOAK

- Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen Legearen 22,2i) artikulua, funtzio gehigarriak ezartzeko eskumena duen organoari buruz.

- 1732/1994 Erret Dekretua, ordainsari horiei dagokien kopuruarekiko (gehienez, oinarritzko lanpostuari dagozkion ordainsarien %30a arte).

Horren ondorioz, Antolakuntza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Idazkaritza eta Kontuhartzailtza lanpostuak betetzen dituztenen alde, funtzio gehigarri horiek betetzeagatik urteko 11.150,73 € gordinoko ordainsaria ezartzea, hurrenez hurren, Sasieta Mankomunitateak 2015-12-28an hartutako erabakiaren arabera, hilean 26 orduko dedikazioarekin, Batzar Errektoreko bileretara joatea barne.

Bigarren. Ordainsaria haborokin kontzeptuan, hamabi hilabetetan ordainduko da eta 2015eko irailaren 9ko atzera eraginarekin izango du.

Hirugarren. Plaza hornitzen denean, aipatutako ordainsari osagarria automatikoki ordaintzeari utziko zaio.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

8.- BAREMOA. Udal kiroldegiaren zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifetan eta udal tasetan diru-laguntzak ematea.

Alkatea jaunak, gizarte-ongizate batzordearen proposamenaren berri eman du:

“Gizarte Ongizate batzordeak 2015eko abenduaren 16an egindako bileran, Udal kiroldegiaren zerbitzuen erabilpenagatik tarifak eta udal tasen arloan laguntzak emateko ordenantza dela eta, ondorengo proposamena aurkeztea erabaki du:

.-2015. urtean ur eta zabor kontzeptuengatik ordaindutako kopuruak berreskuratzeko, laguntza emateko kontutan hartuko diren diru-sarreraren baremoa ondorengo izatea:

-Hileko 648,60 euro arte, ordainagiriko zenbateko guztia lortzeko.

-Hileko 648,60 eurotik 972,90 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %75 lortzeko.

-Hileko 972,90 eurotik 1.297,20 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %50 lortzeko.

.- 2015. urtean Udal kiroldegiaren zerbitzuen erabilpenengatik ordaindutako kopuruak berreskuratzeko, laguntza emateko kontutan hartuko diren diru-sarreraren baremoa ondorengo izatea:

-Hileko 648,60 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %60a lortzeko

-Hileko 648,60 eurotik 1.297,20 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren %30a lortzeko.

Eskatutako tasei eta tarifei dagozkien ekitaldi ekonomikoan zehar izandako diru-sarrerak zenbatuko dira.

Aipatutako proposamena Udalbatzak onartzea eskatzen da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

9.- KIROLAREN UDAL ERAKUNDEAK ESKUMENAK BERRESKURATZEA.

Ezagutzera eman da, disolbatze prozesuan dagoen Beasain Lantzen, S.A. likidadorearen proposamena:

“Gaia: Kirolaren Udal Erakundeak, Estatutuetako 4. artikuluan aurreikusitako eskumenak berreskuratzea.

AURREKARIAK

1.- 2004-10-13an, Udalbatza Osoak ondorengo erabakia hartu zuen:

“Lehenik. Udal kirol gunea sustatzea eta etorkizuneko kirol-instalazioen kudeaketa, “Beasain Lantzen, S.A.”, Sozietate Anonimoari enkargatzea.

Hala ere, kontutan izanik, Kirolaren Udal Erakunde, organismo autonomoak Estatutuetako 4. artikuluan aurreikusita dituen eskuduntzak, “Beasain Lantzen, S.A.”k edota berak etorkizuneko instalazioetako zerbitzuen kudeaketa emateko kontratatuko duen enpresak, organismo autonomoaren zuzendaritzapean lana egingo du, izan ere hau arduratuko baita zerbitzuak antolatu eta ikuskatzen.

Dena dela, enkarguaren helburua lortzen denean, hau da, Udal kirol gunea exekutatu eta etorkizuneko kirol-instalazioen kudeaketa “Beasain Lantzen, S.A.”, Sozietate Anonimoari ematea, obra exekutatzeak suposatuko duen zerga-karga murrizteko asmoarekin, Organismo Autonomoak, berez duen titularitatearen arabera dituen eskuduntzen osotasunezko jarduera berreskuratuko du.

Bigarren. “Beasain Lantzen, S.A.”, Sozietate Anonimoari, kapital hazkuntza modura egungo kirol-instalazioen nahiz hauek kokatuta dauden finken (erregistroko zenbakiak: 5.255 eta 7.142) erabilpen-lagapenaren ekarpena egitea.

Lagapena, enkarguaren helburua bete arte egingo da eta gehienera ere berrogeita hamar urtekoa izango da. Hala ere, bi kasuetako edozeinetan ere, eskubidearen ebazpenak ez du inolako diru-prestaziorik ekarriko aldeetako edozeinentzat ere (lagatzailea eta lagapen-hartzailea).

Horrek hau esan nahi du: lursail horiekiko azalera emakidaren eskubidea eratuko dela, eta denboraldirako jabetza, aipatutako eperako, “Beasain Lantzen” sozietatearen alde izatea ekarriko duela.

Hirugarren. Patxi Plazaola Alkate jaunari baimena ematea aipatutako lursaila, “Beasain Lantzen, S.A.”ri eskualdatzeko eta erabaki hau formalizatzeko behar diren dokumentuak sinatzeko.

2.- Instalazioak eraiki ondoren, Beasain Lantzen, S.A.k UTE, BEASAIN, UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, DE 26 DE MAYO, esleitzen dio Beasaingo Antzizar kiroldegiko kudeaketa osoa eta denboraldiko enpresa honek eskatuta, kontratua lagatzen zaio INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS CUATRO, S.L.ri. Enpresa honekin kontratua formalizatzen da, 2007-01-2an.

3.- Interes publiko arrazoiak direla medio kontratua aldatzen da 2010-12-17an eta 2015-01-27an.

4.- 2015-12-22an Soziedadeko Batzorde Errektoreak, Sozietatearen estatutuen 28. artikulua arabera, hots, helburu soziala betetzea oso zaila dela egun dagoen egoera ekonomikoaren arabera eta Esarbe, S.A., sozietatea kudeatzen zuen enpresak 2015eko ekainaren 15eko datarekin, Beasain Lantzenekin sinatuta zuen kontratua bukatutzat eman zuela kontuan izanda (horren berri Administrazio Kontseiluak 2015-09-14an egindako bileran eman zen, ondorengoa erabaki zuen: sozietatea disolbatzea, Administrazio Kontseiluko karguak bertan behera uztea, Sozietatearen likidatorea izendatzea eta 2015-12-22ra hasierako balantzea onartzea.

Horren ondorioz, Leire Artola Ugalde, Beasain Lantzen, S.A.ren likidadore andreak, Sozietatearen bazkide bakarra den Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L.rekin Beasaingo Antzizar kiroldegiko kudeaketa osoa emateko kontratua, Beasaingo Kirol Fundazio Publikoari lagatzea, Fundazio horren Estatutueta 4. artikuluan aurreikusitako eskumenen eskualdaketa eginez, aurrerantzean Beasain Lantzen, S.A.ren posizioan subrogatu ahal izateko.

Bigarren. Erabaki honen berri Beasaingo Kirol Fundazio Publikoari eta INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L.ri ematea, adieraziz hamabost eguneko epean idatzi hau jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, beraien defentsarako bidezkoak diren adierazpenak egin ditzaten.

Hirugarren. Alegaziorik aurkezten ez bada, ulertuko da tazituki onartzen dela jakinarazitakoa eta erabakia behin betikoa izatera pasatuko da, kontratatzaileentzat ondorio hauekin:

1.- Kontratuaren nobazioa burutuko da, bi aldeek sinatu behar dutelarik (Fundazio Publikoa eta enpresa) eta horretarako INSTALACIONES DEPORTIVAS MAS QUATRO, S.L. berme berria aurkeztuko du bere eginkizunak beteko titula bermatzeko Fundazioaren aurrean. Bide batez, bere garaian Beasain Lantzen, S.A.ren aurrean aurkeztutaka bueltatuko zaio.

2.- Fundazioko organo gobernuak hartutako erabakien ondorioz sortutako gastuak eta egin beharreko ordainketak erabaki hau behin betikoa izatera pasatzen denetik, Fundazioaren kontura izango dira, sinatutako kontratuaren arabera kiroldegia kudeatzen duen enpresarenak ez badira behintzat.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

10.- EGINDAKO ERREPAROEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEI BURUZKO TXOSTENA.

Ezagutzera eman da, kontuhartzaileak 2016ko urtarrilaren 29an egindako txostena, hau da:

“GAIA.- Egindako eragozpenen aurka emandako Ebazpenei buruzko jakinarazpenak Udalbatzari.

Txosten hau, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratzailearen 218 artikulua xedatutakoaren agindupean igortzen da, honek ezartzen baitu Udalbatzari helaraztearen beharra Toki Erakundearen Lehendakariak, egindako eragozpenen aurka emandako ebazpenen berri ematearen betebeharra.

Aipatutako xedapenak dioena betez ondorengo ebazpenak zerrendatzen direla:

- B15/01378 ebazpena, Udalaren hileroko agerkariak emateko zerbitzuari buruzkoa.

- B15/01387 ebazpena, haurtzaro eta nerabezarorako (Berritsu, Txelotxe eta EIZU) zerbitzuei buruzkoak.

- B16/00044 ebazpena, Murumendi ikastetxeko obrei buruzkoa.

- B16/00045 ebazpena, Alkartasuna Lizeoko obrei buruzkoa.

2.- Jakinarazpen horrek puntu independente bat osatu behar duela dagokion Osoko Bilkurako gai-zerrendan.

3.- Korporazioaren Lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango duela Osoko Bilkuran."

11.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2015-12-30etik 2016-01-30era bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2015-12-30etik 2016-01-30era bitarte emandako Ebazpenak.

12.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

ALKATEAREN BULEGO BERRIA ETA ORIA PASEALEKUKO IGOGAILUA

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "En el último Pleno celebrado por esta Corporación, preguntamos por el costo del despacho del Sr. Alcalde y a día de hoy todavía no se nos ha presentado la factura debidamente desglosada, ni se nos ha comunicado de dónde ha salido la cantidad."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Te dije por teléfono la cuantía, que creo que asciende a 11.800 y pico euros. Lo mejor es que vayas a servicios y te lo digan. Si prefieres te la doy yo, pero..., no hay ninguna objeción para que vayas, la pidas y se te dé."

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Así lo haré."

Por otro lado tenemos constancia de que el Alcalde se ha reunido con algunos vecinos de la Portería y ha presentado tres proyectos urbanísticos. También sabemos que el equipo de gobierno no ha estado presente más de ocho minutos en dicha presentación. Esto nos parece una falta de respeto para con los vecinos como respecto a los dos grupos de la oposición. Consideramos una falta de respeto institucional de conocimiento de la existencia de dichos proyectos en la calle. Queremos saber cuando va a poner el Alcalde toda esta información a disposición de la comisión de urbanismo, junto con el costo de la misma, y del mismo modo queremos preguntarle cómo es posible que esos proyectos estén en manos de personas que no son miembros de esta Corporación y que el resto de grupos no tengamos ninguna constancia.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Con los vecinos de la Portería nos reunimos asiduamente. Ayer la última vez. Hablamos con ellos una vez que tomamos el compromiso de que los 120.000 €, los gastaran en lo que ellos creían conveniente. Se ha puesto a disposición de ellos servicios de arquitectura para ayudarles a decidir en qué quieren gastarlos. Un miembro del partido socialista también estuvo. La razón por la que yo acudí a la reunión, no sé si estuve ocho o diez minutos, es porque la decisión la tienen que tomar los vecinos y así se les ha hecho saber. Nosotros, en principio, no vamos a entrar. Si ellos no se ponen de acuerdo, entonces entraremos. Esas son las condiciones que acordamos con los vecinos de la Portería. Aún no han tomado ninguna decisión y una vez que la tomen, si es que la toman, nos dirán cuál es el proyecto que quieren presentar. Entonces será el momento de pasarlo por la comisión y aprobarlo. Pero repito la decisión de en qué se quieren gastar los 120.000 € que propusisteis vosotros está en sus manos. De todas maneras Santi, recordarte que no hace ni un mes que te propuse que vosotros como partido socialista liderarais ese proceso. Vuelvo a tenderte la mano para ello. No hay ningún problema para que seáis vosotros, puesto que la propuesta fue vuestra.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros no tenemos ningún afán de liderar nada en ese sentido. Lo que si nos gustaría es que una vez que los vecinos elijan lo que quieren hacer, se haga cuanto antes.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Si, claro.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Nik uste dut ahaztu egin zaigula benetan diru hori zertarako zen. Harrigarria iruditzen zait, guk prozesu bat martxan jarri ondoren eta bizilagun bakoitzak aukera izanda proiektua hautatzeko, orain ezer ez egitea. Utzikeria iruditzen zait. El Ayuntamiento no tutela, no sabe, no opina sobre quien decide en qué se van a invertir esos 120.000 €. En el anterior Pleno pregunté y se me dijo que los vecinos ya decidirán. Nuestro grupo se siente dolido porque fue un proceso novedoso que se hizo en Beasain. Tuvimos nuestros problemas y nuestras pegas y lo sacamos adelante. Se decidió hacer un ascensor y se echó abajo por razones

que no cree nadie. Ahora estamos en nuevo proceso y nos encontramos en que se deja hacer, no sé si nos dirán algo.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “El recorrido de los 120.000 €, lo conocemos perfectamente. Desde nuestro punto de vista el proceso participativo dejaba mucho que desear. En lo que nosotros nos hemos apoyado para no hacer el ascensor del Paseo del Oria, se centra sobre todo en el informe del aparejador municipal, en el que se informa: *“proponer la cancelación de la adjudicación de las obras por entender que la obra adjudicada no puede llevarse a cabo por la negativa del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa para permitir construir encima de su red, así como por la incertidumbre de no saber a ciencia cierta si se podrían cumplir los condicionantes técnicos que imponen el resto de las Compañías Suministradoras.”*. A raíz de esto, se apoye o no, nosotros decidimos no hacer el ascensor en la Portería, pero si proponemos incluir 120.000 € en los presupuestos de 2016. Lo que se hace es que los vecinos se asesoren de unos técnicos para saber en qué tiene que gastar el dinero. El camino habrá que recorrerlo, pero entendemos que el proyecto, por ese asesoramiento, será realizable. Vuelvo a repetir, nos reunimos asiduamente con la Asociación de Vecinos de la Portería, que son los que están liderando este tema. Nosotros les ayudamos a hacer los llamamientos, pero tampoco entramos más allá.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Por matizar. No sé si no me has oído, me has oído y no me has querido entender. El debate ya tuvimos en el anterior Pleno. Ya quedó claro que tanto por el Consorcio, como por Naturgas, como por Iberdrola, ese ascensor se puede hacer. Ese informe del que tu me hablas, no lo tiene nadie más. Ni el grupo socialista ni el grupo BILDU. Se hizo un proceso que tu dices que dejó bastante que desear, por supuesto, se puede mejorar. Fue una experiencia pionera y tuvo el resultado que tuvo. Vuelvo a repetir, dejar 120.000 € a merced de la decisión que tome una Asociación de Vecinos, sin saber el proceso participativo que van a llevar para ello, me parece curioso. Se habla de unos arquitectos, pero no se sabe quienes son, porque en el Ayuntamiento no hay ninguno. ¡No entiendo nada!.

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Nik uste dut arazoa betikoa dela eta da, informazio falta. Batzordeak egiten ditugu eta batzordeetan informazioa eman ezker, Plenoan ez daude gai hauek atera beharrik. Ez dugu hemen ordu erdi bat egon behar gai berdinari bueltak ematen, baina informazioa ematen ez bada...Partehartze prozesu bat ere badugu, baina ez da informaziorik ematen.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Gezurak buztana laburra omen du. Hirigintza batzordetik uztailean pasatutako txostena da. Txostenak data du eta aktetan jasota dago eta ez dut nik inbentatu. Zuek esan nahi baduzue ez dela pasa esateko gu ezkutuan gabiltzala..., beno hori bakoitzaren kontua da. Esaten da aurreko plenoan garbi geratu zela, baina garbi geratu zena izan zen emandako informazioa zati bat bakarrik izan zela. Kuriosoa da, udalaren interesak

bermatzen dituen udal aparejadorearen txostenak azaltzen duena ez adieraztea. Partehartze batzordetik ez dela pasa esan da. Partehartzea bizilagunekin adostea izan zen. Beraiek bideratzeko esan zitzaien eta ez bazuten bideratzen, guk partehartze batzordetik bideratuko genuela eta gure erara egingo zela. Horiek izan ziren baldintzak eta horiekin ari gara.”

Jarraian Alkateak otsailaren 5ean San Martin eguna ospatzeko dauden ekintzen berri eman du (meza, odolki dastaketa, kofradeen izendapena, Castillo jatetxean bazkaria, erretiratuen etxean ekintza, urrezko aizkora dela eta kiroldegian ekitaldia eta Usurbe antzokian 400.urteurrena dela eta Beasaini buruzko bideoa) eta beste Korporazioko kideei ekintza horietan parte hartzeko gonbidapena luzatu die.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.